




Etxebizitzaren gaineko hipotekak %5,3 gutxitu ziren

Etxebizitzaren gaineko hipotekak

Urte bakoitzeko urtariletik azarora metatua




Iturria: INE.

Etxebizitzaren gainean eratutako hipoteken kopurua %5,3 murriztu zen azaroan, aurreko urteko hil beraren aldean. Hala ere, urteko lehen hamaika hilabeteetako kopuru metatuan 21.500 hipoteka baino gehiago formalizatu ziren, 2010etik izandako erregistrorik onena.

Hoteletako gaurdiek igotzen jarraitzen dute

Hoteletan igarotako gaurdiak

Urte bakoitzeko abendua. Mila



Iturria: Eustat.


EAEko hotel establezimenduetako gaurdiak %30,7 handitu ziren 2021eko abenduarekin alderatuta. Era berean, urte osoko datuak batuta, ostatu gauen kopuru hori ia 6.500.000ra iritsi zen, hots, datuak daudenetik inoiz jaso den erregistrorik handienera.



Industriako prezioen igoera berriro apaldu da

Euskadiko industriako prezioak

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Abenduan, IPRIaren urte arteko aldakuntza tasa %13,4 izan zen, hau da, 4,4 puntu jaitsi zen aurreko hileko datuaren aldean. Horrela, industriaren prezioek 2022 urte osoko erregistrorik txikienarekin amaitu zuten urtea. Apaltzeko joera, bereziki, energiaren atalean hauteman zen.

Euroguneko PMI konposatua 50,2an kokatu zen

Euroguneko PMI konposatua

Indizea



Iturria: Markit.

Euroguneko PMI konposatua 50,2 puntutan kokatu zen urtarrilean, abenduko datua baino bederatzi hamarren gorago. Horri esker, hedapen eremura itzuli da, nahiz eta jardueraren hazkundera oso mugatua izan. Bai zerbitzuek bai manufakturrek beren indizeak hobetu zituzten.